Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko ekainaren 12a, asteazkena — 113 — Miércoles, a 12 de junio de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hogeitahamarrean, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

*Lehena.* Udal txistulari Bandaren lan hitzarmen osagarria onartzea, honako edukiarekin:

«*Lehena:* Txistulari bandaren langile-kopurua eta barne-antolaketa.

Txistulari-banda sei kidez osatua dago, zuzendari bat eta bost txistulari, eta azken horietatik bi perkusio-zereginetan aritzen dira.

Urteko lan-egutegia antolatzeko, hiru taldetan banatzen dira sei partaideak: A, B eta C dira taldeak. Horrela, lau partaidek jotzen dute emanaldietan, eta talde batek jai egiten du. Lan-egutegian emanaldia dagoen egunean agertzen den hizkiak egiten du jai egun horretan.

*Bigarrena:* Lan-egutegia osatzeko irizpideak.

Txistulari-bandako bost partaideek % 16ko lanaldia daukate (zuzendariak % 48ko lanaldia du). Txistulari-bandako langileen urteko ordu-kopurua honela banatzen da:

— Urteko lanorduen kopurua: 254,72.

— Urteko lanordu presentzialak: 189,12.

— Urteko lanordu ez-presentzialak: 65,60.

Lanordu presentzialetan, honako eginkizun hauek daude zehaztuta:

— Entseguak.

— Igande eta zenbait jaiegunetako dianak.

— Lanegunetako zortzikoak (Corpus-bezpera).

— Urtean zehar egiten diren kontzertu eta prozesioak (Corpus).

— Inauterietako betebeharrak.

— Sanjoanetako betebeharrak.

— Errege-bezperako desfilea.

— Larunbat eguerdi batzuetan egiten diren kale-animazio ekintzak.

— Bi urtetik behin egiten den txistulari-kontzertu berezia.

— Urtean zehar sortzen diren protokolo-ekitaldiak.

Entseguak irailaren 15etik abenduaren 22ra, eta urtarrilaren 7tik ekainaren 22ra egiten dituzte. Aste Santuko bi asteetan ez da entsegurik izango.

*Hirugarrena:* Jardueren orduak zenbatzeko era.

Txistulari-bandaren lanaren ezaugarriak kontuan hartuz, aipaturiko eginkizun horietako bakoitzari (entseguei izan ezik), au-

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el día treinta de mayo de dos mil veinticuatro, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

*Primero.* Aprobar el convenio colectivo complementario de la Banda Municipal de Txistularis de Tolosa, con el siguiente contenido:

«*Primera:* Plantilla y organización interna de la banda de txistularis.

La banda de txistularis está compuesta por seis miembros, un/a director/a y cinco txistularis, dos de ellos/as dedicados a tareas de percusión.

Para organizar el calendario de trabajo anual, los/las seis miembros se dividen en tres grupos, A, B y C. Así, a las actuaciones acuden cuatro miembros, y un grupo hace fiesta. Este día festivo lo hace el grupo de la letra que figura en el calendario laboral el día de la actuación.

*Segunda:* Criterios para la elaboración del calendario laboral.

Los/las cinco integrantes de la banda de txistularis tienen una jornada del 16 % (el/la director/a tiene una jornada del 48 %). El número de horas de trabajo anuales del personal de la banda de txistularis se distribuye de la siguiente manera:

— Horas anuales de trabajo: 254,72.

— Horas anuales de trabajo presencial: 189,12.

— Horas anuales de trabajo no-presenciales: 65,60.

En las horas de trabajo presenciales se definen las siguientes funciones:

— Ensayos.

— Dianas de domingos y varios festivos.

— Zortzikos de días laborables (víspera de Corpus).

— Conciertos y procesiones que se realizan a lo largo del año (Corpus).

— Obligaciones de carnavales.

— Obligaciones de fiestas de San Juan.

— Cabalgata de la víspera de Reyes.

— Actividades de animación callejera que se realizan varios sábados al mediodía.

— Concierto especial bianual de txistularis.

— Actos protocolarios que se organizan a lo largo del año.

Los ensayos se realizan del 15 de septiembre al 22 de diciembre, y del 7 de enero al 22 de junio. Durante las dos semanas de Semana Santa no habrá ensayos.

*Tercera: Forma de computar las horas de las actividades.*

Teniendo en cuenta las características del trabajo de la banda de txistularis, a cada una de las funciones mencionadas (ex-

EK\CV GAO-I-2024-04194

rrez adosturiko gutxieneko ordu-balio bat emango zaio jardueraren iraupen erreala laburragoa den kasuetan:

* Dianak: ordu eta erdi.

Urtean zehar, Alde Zaharrean zortzikoa jo ondoren, astero auzo batean kalejira bat egiten da, auzoen artean txandaka. Dianaren ondoren kontzertua edo prozesioa dagoenean, Alde Zaharreko zortzikoa bakarrik jotzen da. Baita uztailean eta irailean, eta abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra (biak barne) ere.

* Diana eta kontzertua eskaintzen diren igandeak: 5 ordu (diana 1,5 eta kontzertua 3,5). Diana eta kontzertua eskaintzen diren igandeetan, diana eta kontzertua jotzen dituen txistulariari bost ordu zenbatuko zaizkio. Aldiz, goizean diana ez, baina ondoren kontzertua jotzen duenari, hiru ordu eta erdi.

* Inauteriak: 12 ordu. Inauterietako zereginengatik, guztira, 12 ordu zenbatuko dira. Gaur egun, hauek dira zeregin horiek:

— Ostegun Gizena: txupinazoaren aurretik, zortzikoa.

— Zaldunita: goizean diana, arratsaldean Idiarena eta zezenak.

— Asteartita: goizean alborada, arratsaldean Idiarena eta zezenak.

* Sanjoanak: 22 ordu. Sanjoanetako zereginengatik, guztira, 22 ordu zenbatuko dira. Gaur egun, hauek dira zeregin horiek:

— San Joan egunaren bezperan antzinako erronda-bidea, eta bezperetako protokolo-ekitaldia iluntzean.

— San Joan egunean, goizeko zinegotzi-deia, diana, prozesioa, kontzertua, arratsaldeko protokoloa eta sokadantza.

* Errege-bezperako desfilea: 2 ordu.

* Kale-animazioak: 2 ordu.

* Txistulari-kontzertu berezia: 20 ordu (urte bakoitzean 10 ordu). Bi urtetik behin txistulari-kontzertu berezia egiten denez, lan-egutegian urtero 10 ordu zenbatuko dira, urtero oreka lortzeko.

* Protokoloak: bakoitza ordu eta erdi gutxienez; guztira, urtean, 6 ordu.

Halaber, kasu berezietan honako aldaketa hauek izan daitezke eguneko lan-ordutegia zenbatzeko garaian:

— Neguan, hotz handia denean (bost gradutik behera), Alde Zaharreko zortzikoa bakarrik joko da.

— Euria ari duenean, Alde Zaharreko zortzikoa hiru aterpetan jotzen da, eta auzoetako kalejira ere, horretarako aproposak izan daitezkeen auzoetako aterpeetan joko da.

*Laugarrena:* Lan-txanden aldaketak eta emanaldi-aldaketak.

Txistularien artean jaiegun aldaketa bat egiteko, txistulari-bandako zuzendariari jakinaraziko dio udal-langileak, eta zuzendariak Giza Baliabideak Azpisailari jakinaraziko dio.

Txistulari-bandaren emanaldi baten data aldatzeko, edo lan-egutegian ageri den emanaldi baten ordez beste bat egiteko, Kultura, Festak eta Gazteria Saileko arduradunarekin adostuko da aldaketa hori, eta ondoren Giza Baliabideak Azpisailari jakinaraziko dio txistulari-bandako zuzendariak.

*Bosgarrena:* Txistularien arteko ordezkapenak.

Ezohiko edo salbuespenezko kasuetan, txistulari-bandako kide bat bat-batean gaixo jartzen bada, emanaldi batean jo ezin duenean, eta ordezkorik ez dagoenean, zuzendariak egun horretan jai daukan partaide bati proposatuko dio jotzea. Egoera hori, normalean, dianetan gertatuko da, beste emanaldietan, normalean, partaide guztiek parte hartzen dutelako. Jaieguna izaten

cepto ensayos) se le asignará un valor horario mínimo previamente acordado en aquellos casos en los que la duración real de la actividad sea inferior:

* Dianas: hora y media.

A lo largo del año, tras tocar el zortziko en la Parte Vieja, se realiza cada semana una kalejira en un barrio, rotando entre barrios. Cuando hay concierto o procesión después de la diana, sólo se interpreta el zortziko de la Parte Vieja. Asimismo, se hace así en julio y septiembre, y del 24 de diciembre al 6 de enero, ambos inclusive.

* Domingos con diana y concierto: 5 horas (diana 1,5 y concierto 3,5). Los domingos de diana y concierto, al txistulari que toque diana y concierto, se le computarán cinco horas. Al que por la mañana no toca en la diana, pero después sí en el concierto, tres horas y media.

* Carnavales: 12 horas. El cómputo total de horas por tareas de carnaval será de 12 horas. Actualmente estas tareas son:

— Jueves Gordo: antes del txupinazo, zortziko.

— Zaldunita: diana de la mañana, tarde Idiarena y toros.

— Asteartita: por la mañana alborada, por la tarde Idiarena y toros.

* Fiestas de San Juan: 22 horas. El cómputo total de horas por tareas de las fiestas de San Juan será de 22 horas. Actualmente estas tareas son:

— El antiguo camino de rondas la víspera del día de San Juan, y el acto protocolario de las vísperas al atardecer.

— El día de San Juan, llamada de concejales/as a la mañana, diana, procesión, concierto, protocolo de tarde y sokadantza.

* Cabalgata la víspera de Reyes: 2 horas.

* Animaciones callejeras: 2 horas.

* Concierto especial de txistularis: 20 horas (10 horas/año). Dado que se celebra un concierto especial de txistularis cada dos años, en el calendario laboral se contabilizarán anualmente 10 horas para lograr un equilibrio anual.

* Protocolos: mínimo de hora y media cada uno, en total 6 horas al año.

Asimismo, en casos especiales podrán producirse las siguientes variaciones a la hora de computar el horario de trabajo diario:

— En invierno, en frío intenso (menos de cinco grados), sólo se considerará el octavo de la Parte Vieja.

— En momentos de lluvia, el octavo del Casco Viejo se toca en tres albergues y el kalejira de los barrios en los albergues de los barrios que puedan ser adecuados para ello.

*Cuarta:* Cambios de turnos de trabajo y funciones.

Para realizar un intercambio de día festivo entre txistularis, el/la trabajador/a municipal lo comunicará al/la director/a de la banda de txistularis, quien lo comunicará a la Subárea de Recursos Humanos.

La modificación de la fecha de una actuación de la banda de txistularis, o la sustitución de una actuación incluida en el calendario laboral, se acordará con el/la responsable del Área de Cultura, Fiestas y Juventud, para su posterior comunicación a la Subárea de Recursos Humanos por parte del/la director/a de la banda de txistularis.

*Quinta:* Sustituciones entre txistularis.

En casos extraordinarios o excepcionales en los que un/a miembro de la banda de txistularis enferme repentinamente, no pueda tocar en una actuación, y no haya sustituto, el/la director/a propondrá realizar la sustitución a un/a miembro que tenga fiesta ese día. Esta situación se producirá normalmente en las dianas, ya que en las otras actuaciones, normalmente,

EK\CV GAO-I-2024-04194

dela kontuan izanda, egun horretan jai duen txistulariak joko balu, ordu bakoitzagatik bi orduko konpentsazioa jasoko du. Diana baten kasuan, gutxieneko ordu-balioa ordu eta erdikoa denez, gutxieneko konpentsazioa hiru ordukoa izango da. Ordu horien konpentsazioa zerbitzuan eraginik ez duten egunetan emango da, entseguetarako orduetatik adibidez.

*Seigarrena:* Lanordu ez presentzialen erabilera eta justifikazioa arauak.

Bigarren puntuan aipatu den bezala, txistulari-bandako langileek, haien lan-jardunean, 65,6 ordu izango dituzte, urteko, modu ez-presentzialean. Hala, txistularien lanorduak bi multzotan sailkatuko dira: alde batetik, talde-lanerako orduak (entseguak eta emanaldiak sartuta), eta bestetik, bakarkako lanerako orduak.

Azken horiek, ez-presentzialak alegia, profesionaltasunari eusteko eta hobetzeko, bakarkako ikasketa egiteko, eta zuzendariak proposaturiko bestelako zereginak egiteko izango dira eta modu ez-presentzialean egin ahal izango dira, lantokitik kanpo. Hala ere, langileak ordu horiek lantokian bertan egin nahiko balitu, Udalak horretarako espazio egokia jartzeko betebeharra izango du.

Laburbilduz, ordu ez-presentzialak modu honetan arautzen dira:

1. Ordu ez-presentzialen xedea: profesionaltasunari eustea eta hobetzea, bakarkako ikasketa egitea, eta zuzendariak proposaturiko bestelako zereginak egitea.

2. Ordu ez-presentzialen kopurua: urteko lanordu guztien % 25,75 izango da ez-presentziala. Beraz, txistularien kasuan, urtean 65,6 ordu izango dira ez-presentzialak, eta zuzendariaren kasuan, 196,8 ordu izango dira ez-presentzialak.

3. Ordu ez-presentzialak egiteko lekua: lantokian egiteko derrigortasunik ez da egongo; hala, norberak bere kabuz aukeratzen duen tokian egin ahal izango ditu. Hala ere, txistulari-bandako partaideren batek ordu horiek lantokian egin nahiko balitu, Udalak horretarako leku egokia jarri beharko du Gorosabel eraikinean (egun hor dago musika-eskolako txistu-gela).

4. Ordu ez-presentzialen erregistroa: ordu ez-presentzialak lantokian fitxatzeko betebeharrik ez izan arren, ordu horien erregistro bat egin beharko da. Horretarako, txistulari-bandako zuzendariak, hiruhileko bakoitza igaro ondoren, lehenengo hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan txistulari-bandako kide bakoitzak egin duen ordu ez-presentzialen kopurua, eta ordu horiek noiz egin diren zehaztuko du txosten batean, eta Giza Baliabideak Azpisailera bidaliko du txostena.

5. Ordu ez-presentzialen banaketa: legeak ahalbidetzen duen moduan, ordu ez presentzialen banaketa ezberdina izan daiteke aste edo hilabete bakoitzean, beti ere urteroko homogeneotasun bati eusten saiatuta. Langile bakoitzak saiatu beharko du, urtero dagokion ordu ez-presentzial kopurua osatzen, zerbitzuaren beharren arabera orduen banaketa egokituta. Ordu horiek ez dira urte hasierako lan-egutegian txertatuko».

*Bigarrena.* Hitzarmen Osagarri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik indarrean sartzea.

*Hirugarrena.* Akordioaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko Iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratzea.

Erabaki honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean.

participan todos/as los/as miembros de la banda. Teniendo en cuenta que se trata de un día festivo, si actúa un/a txistulari que ese día tenga su día de fiesta, percibirá una compensación de dos horas por cada hora. En el caso de una diana, dado que el valor horario mínimo es de hora y media, la compensación mínima será de tres horas. La compensación de estas horas se realizará en días que no afecten al servicio; por ejemplo, de las horas de ensayo.

*Sexta:* Utilización de las horas de trabajo no presenciales, y normas de justificación.

Tal y como se ha mencionado en el punto segundo, el personal de la banda de txistularis, en el ejercicio de su actividad laboral, tendrá de 65,6 horas anuales, de forma no presencial. Así, las horas de trabajo de los/las txistularis se clasificarán en horas de trabajo en equipo (incluyendo ensayos y actuaciones) y horas de trabajo individual.

Estas últimas, no presenciales, estarán destinadas al mantenimiento y mejora de la profesionalidad, a la realización de estudios individuales y a la realización de otras tareas propuestas por el/la director/a, que podrán realizarse de forma no presencial fuera del centro de trabajo. No obstante, si el trabajador quisiera realizar dichas horas en el propio centro de trabajo, el Ayuntamiento estará obligado a habilitar el espacio adecuado para ello.

En resumen, las horas no presenciales se regulan de la siguiente manera:

1. El objeto de las horas no presenciales: el mantenimiento y mejora de la profesionalidad, la realización de estudios individuales y otras tareas propuestas por el/la director/a.

2. Número de horas no presenciales: el 25,75 % del total de horas de trabajo anuales será no presencial. Por tanto, en el caso de los/las txistularis, 65,6 horas anuales serán no presenciales, y en el caso del/la director/a 196,8 horas anuales serán no presenciales.

3. Lugar de realización de las horas no presenciales: no habrá obligación de realizarlas en el centro de trabajo, pudiendo realizarlas en el lugar que libremente se elija. No obstante, si algún/a miembro de la banda de txistularis quisiera realizar dichas horas en el centro de trabajo, el Ayuntamiento deberá habilitar un espacio adecuado para ello en el edificio Gorosabel (donde está actualmente la sala de txistu de la escuela de música).

4. Registro de horas no presenciales: aunque no sea obligatorio fichar las horas no presenciales en el centro de trabajo, se deberá llevar un registro de las mismas. A tal efecto, el/la director/a de la banda de txistularis, en la primera quincena de cada trimestre, recogerá en un informe el número de horas no presenciales realizadas por cada miembro de la banda de txistularis en el trimestre anterior, así como la fecha de realización de las mismas, remitiendo el informe a la Subárea de Recursos Humanos.

5. Distribución de las horas no presenciales: como permite la ley, la distribución de las horas no presenciales puede ser diferente en cada semana o mes, procurando mantener una homogeneidad anual. Cada trabajador/a deberá intentar completar el número de horas no presenciales que le corresponda cada año, ajustando su distribución a las necesidades del servicio. Estas horas no se incluirán en el calendario laboral de comienzo de año».

*Segundo.* El presente Convenio Complementario entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Tercero.* Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y en la página web del Ayuntamiento.

Contra este acuerdo no cabe recurso en vía administrativa.

EK\CV GAO-I-2024-04194

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tolosa, 2024ko ekainaren 4a.—Andu Martinez de Rituerto Arregi, alkatea. (4194)

No obstante, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Tolosa, a 4 de junio de 2024.—El alcalde, Andu Martinez de Rituerto Arregi. (4194)

EK\CV GAO-I-2024-04194